

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

676

EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 22a, Etxebizitzako sailburuordearena, 2023ko aurrekontu-ekitaldirako kredituen eguneraketa argitaratzekoa. Halaber, jakinarazten da amaitu egin dela eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duten birgaitze-programetarako laguntzen deialdi publikoa finantzatzeko kreditua (programa horiek urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan jasota daude, zeinak arautzen baititu Europar Batasunak finantzatutako Next generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. programak).

2022ko ekainaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindu hau argitaratu zen: AGINDUA, 2022ko ekainaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duten birgaitzeetarako laguntza-programen oinarriak zehaztu eta deialdi publikoa arautzen baita (programa horiek urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan jasota daude, zeinak arautzen baititu Europar Batasunak finantzatutako Next generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. programak).

Agindu honen xedea da urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako 3., 4. eta 5. programetako laguntzak emateko oinarriak garatzea eta deialdi publikoa antolatzea. Dekretu horren bidez arautzen dira Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren laguntza-programak, bizitegiak birgaitzeari eta etxebizitza sozialei dagokienez, eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzeko, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko (SEM) 2. osagaiaren esparruan.

Era berean, agindu honen xedea da laguntza horien bateragarritasun- eta lehentasun-araubidea zehaztea laguntza hauen eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduak –etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientiaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoa– eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren abenduaren 7ko Aginduak –etxebizitzaren alokairuaren eta bestelako bizitegi-eraikinen sustapenaren arloko jarduketei buruzkoa– ezarritako finantza-neurrien artean.

2022ko ekainaren 21eko Aginduaren 6. artikuluan, energia-eraginkortasuna sustatzeko xedez etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntza-programekin erlacionatutako laguntzen deialdi publikoa egiteko baliabide ekonomikoak ezarrita daude. Programa horiek urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan jasota daude, zeinak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 3., 4. eta 5. programak arautzen baititu, bizitegiak birgaitzeari eta etxebizitza sozialei dagokienez (Europar Batasunak finantzatua – Next Generation EU).

«3.– Bat etorri urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren –Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren laguntza-programak arautzen dituena, bizitegiak birgaitzeari eta etxebizitza sozialei dagokienez– 5.2 artikuluan xedatutakoarekin, zenbateko osoa eta, hala badagokio, agindu honetan barne hartutako programa bakoitzari esleitutako esleipen zehatza osatu ahal izango dira, laguntzak ebatzi aurretik, agindu honen 3. artikuluko laguntzen bateragarritasun- eta lehentasun-araubidearen esparruan, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren mendeko beste programa batzuk, etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko sustapen-neurriak hartzea helburu dutenak, egikaritzearen ondorioz agortu gabe gera daitezkeen aurrekontuen kargura. Inguruabar hau Etxebizitzako sailburuordearen ebazpen baten bidez jakinaraziko da.

4.– Etxebizitzako sailburuordearen ebazpen baten bidez, aurrekontu-aldaketen ondorioz onartzen diren kredituen eguneratzearen berri emango da, eta programa bakoitzerako laguntzak eta, hala badagokio, horiek osatzen dituzten funtsak finantzatzeko urteko kreditua agortu egin dela jakinaraziko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta. Urteko kreditua agortu egin dela argitaratu eta gero, aurrekontu-ekitaldi horretan aurkezten diren laguntza-eskabideak erabat ezetsi ahal izango dira.»

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitzako sailburuordearen 2023ko maiatzaren 19ko Ebazpenaren bidez, argitara eman zen Europar Batasunaren Next Generation EU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planeko bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko 3., 4. eta 5. programak arautzen dituen urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan jasotako bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntza-programei lotutako laguntzen deialdi publikoaren 2023ko aurrekontu-ekitaldirako kredituen eguneratzea.

Deialdi publiko horretara bideratu dira Estatuaren Aurrekontu Orokorretan xede horretarako 2021eko, 2022ko eta 2023ko ekitaldietarako onartutako zuzkidura guztiak, Euskal Autonomia Erki-degorako zirenak.

Ebazpen horretan honako hau xedatu zen: «Beraz, zenbateko hori agortu ondoren, ez da laguntza gehiago emango. Kreditua amaituz gero, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitzako sailburuordearen agindu baten bidez jakinaraziko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian».

Halaber, eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitzako sailburuordearen 2023ko ekainaren 27ko Ebazpenaren bidez, jakinarazten da amaitu egin dela eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duten birgaitzeetarako laguntza-programen laguntzen deialdi publikoa finantzatzeko kreditua (programa horiek urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan jasota daude, zeinak arautzen baititu Europar Batasunak finantzatzeko Next generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. programak).

Ebazpen horrek 2023ko ekainaren 19tik aurrera sortzen zituen ondorioak.

Horren ondorioz, eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta etxebizitzaren eta lurzorua arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duten birgaitzeetarako programetarako laguntza-deialdi publikoko 2023ko aurrekontu-ekitaldirako kredituen eguneraketa. Programa horiek hemen daude jasota: urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretua, Europar Batasunak finantzatzeko Next generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. programak arautzen dituenak.

Gauzak horrela, Gobernu Kontseiluak, 2023ko urriaren 31ko bilkuran, kreditu globala diruzaintzako gerakinaren kargura handitzea erabaki zuen, 60.000.000 euroan handitu ere, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko 2023ko ekitaldian dauzkan kreditu-beharrizanei erantzuna emateko, hala behar baita Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko dauzkan funtsen finantzaketa gehigarriko.

2024ko otsailaren 7a, asteazkena

Bigarrena.– Kreditu-eguneraketaren xedea 2023ko ekainaren 19a baino lehen aurkeztutako espedienteak izango dira. 2023ko ekitaldiaren kontura eman beharreko laguntzen guztizko zenbatekoak ezin izango ditu gainditu lehenengo apartatuan adierazitako diru-kopuruak edo, indarrean dagoen legedi aplikagarriari jarraikiz aurrekontu-aldaketarik onartuz gero, kopuru horiek izango duten igoeraren ondoriozko kopurua. Aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitzako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

Hirugarrena.– Halaber, jakinarazten da amaitu egin dela eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duten birgaitzeetarako laguntza-programen laguntzen deialdi publikoa finantzatzeko kreditua (programa horiek urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan jasota daude, zeinak arautzen baititu Europar Batasunak finantzatzeko Next generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. programak).

Laugarrena.– Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduan jasotako erregulazioaren arabera kasu hartzeko baldintza guztiak betetzen dituzten eskabideak (agindu horren bidez, eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duten birgaitzeetarako laguntza-programen oinarriak zehaztu eta deialdi publikoa arautzen da -programa horiek urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan jasota daude, zeinak arautzen baititu Europar Batasunak finantzatzeko Next generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. Programak), baliabide ekonomikorik ez izateagatik bakarrik ukatzen badira, hurrengo ekitaldi ekonomikoan ebatzi ahal izango dira Horretarako, behar beste baliabide ekonomiko egon beharko dira hurrengo ekitaldietan.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 22a.

Etxebizitzako sailburuordea,
PEDRO JAVIER JAUREGUI FERNÁNDEZ.